



Ebazpena, Justizia Administrazioako zuzendariarena, Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialei dagokienez, bulego judizialetako, udalerriko justizia bulegoetako zein horien elkarteetako eta erregistro zibileko bulego orokorretako lanpostu berrietan birkokatzeko prozesuaren baitan bitarteko funtzionarioak izendatzeko zerrenda onartzen duena.

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2025eko uztailaren 31ko Ebazpenaren bidez, Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetako karrerako funtzionarioak atxikitze irizpideak eta egokitzapen-prozesua nola garatu onartu ziren.

Ebazpen horren 10. artikularekin bat etorritik, Justizia Administrazioako zuzendariak 2026ko otsailaren 10eko Ebazpena eman zuen. Horren bidez, lehen aipatutako barruti judizialetako karrerako funtzionarioei atxiki gabe geratutako lanpostu berrietan bitarteko langileak birkokatzeko prozesuan parte hartzera deitutako langileak eta lanpostuen zerrenda argitaratu ziren. Era berean, hiru egun balioduneko epea eman zen parte hartzeko eskabideak aurkezteko.

Epe hori amaitu da eta, langile horiek egindako adierazpenak ikusita, eta aipatutako ebazpenean aurreikusitako birkokatzeko-prozedurarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Birkokatzeko-prozesuaren ildotik, bitarteko funtzionarioen izendapen-zerrenda onartzea eta argitaratzea Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetako bulego judizialetako, udalerriko justizia bulegoetako zein haien elkarteetako eta erregistro zibileko bulego orokorretako lanpostu berriei dagokienez (I. eranskinean, Arabako Lurralde Historikoa; II. eranskinean, Bizkaiko Lurralde Historikoa; III. eranskinean, Gipuzkoako Lurralde Historikoa).

Bigarren.- Birkokatzeko-prozesuaren ildotik, lanposturik lortu ez duten bitarteko funtzionarioen zerrenda onartzea eta argitaratzea, Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetako bulego judizialetako, udalerriko justizia bulegoetako zein haien elkarteetako eta erregistro zibileko bulego orokorretako lanpostu berrietan (IV. eranskina).

Hirugarrena.- Birkokatzeko-prozesu honetan parte hartzera deitutako bitarteko langileek lanpostua utz dezaten erabakitzea 2026ko martxoaren 10ean.

Laugarrena.- Birkokatzeko-prozesu honen bitartez lanpostua lortu duten bitarteko langileek 2026ko martxoaren 11n formalizatu beharko dute izendapena.

Bosgarrena.- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus

